



kritiken hemeroteka

6.705 kritika

Honi buruz

Bilaketa

Hasiera

Azken kritikak

- **Bitakora kaiera**
Ibon Sarasola
Mikel Ayerbe
- **Trilogia hiperlaburra**
Karlos Linazasoro
Hasier Rekondo
- **Hitz Margotuak**
Karlos Aretxabaleta / Mikel Manso
Igor Estankona
- **Hamaika euskal literato eta Jainkoa**
Sebastian Gartzia Trujillo
Javier Rojo
- **Franco hil zuten egunak**
Koldo Izagirre
Alex Gurrutxaga
- **Urtemuga lehorren kronika**
Itxaro Borda
Aritz Galarraga
- **Franco hil zuten egunak**
Koldo Izagirre
Ibon Egaña
- **Elkarrekin esnatzeko ordua**
Kirmen Uribe
Iratxe Esparza
- **Isil-mandataria**
Jean Echenoz
Javier Rojo
- **Ahantzteriko kop(I)ak**
Luigi Anselmi

« [Axolagabekeriak irabazten duenean](#) | [Historiaren zama jasangaitza](#) »

Lo zaudela zabaldu dizkizut begiak / Mikel Etxaburu / Erein, 2016

Epelkeriarik gabeko epeltasuna → Iker Zaldúa / *Gara*, 2017-01-07

Mikel Etxabururen uztaldia 2011. urtean hasi zen, "Zu zara orain txoria" izeneko aldarrikapen saioarekin. Gai bera jorratu zuen "Hodeiak zapatetan" lanean, preso egon denaren gogoetak poesiara irauliz. Orduko hartan, baina, aldarrikapena tiraderan utzi eta sentimenduen tonuari heldu zion. Joan berri den urtean iritsi zen "Lo zaudela zabaldu dizkizut begiak", bere hirugarren poesia-liburua, Blas de Otero saria barnean zeramala.

Kasu honetan ere Etxaburuk tonu apal horri eusten dio. Aldarrikari baino ozenago egiten dio epeltasunari dei: "...Ipartargiek bezala, guk ere, ez dugu eguzkia helburu, / nahikoa zaigulako gure herrietako farolen epela / elkarrekin bide berriak argitzeko", dio "Ez dugu eguzkia helburu" izeneko alean. Aurreraxeago ere topa daiteke epeltasun hori "Ez sentitzeko izenekoan": "... epeltasun apur baten bila biltzen gara / hitz egiten duenean bakarrik ez sentitzeko".

Hala ere, ez du erabat alboratu besteek agindutako uhinen erritmora bizitzearen aurka egitearen aldarrika. Horren adibide argia da "Sinetsi behar alea": "Oskoleko durundiarekin konformatzeko eta / itsaso berriak ahazteko esan digute. / Ilargia itzali eta mesanotzeko argia pizteko, / pentsatzeko, eta ez sentitzeko. / Eta guk, harri-koxkorak bota ditugu erreketara / uhinak sortzeko gai garela / sinetsi beharrean gaudelako". Epeltasuna bai, baina epelkeriarik ez.

Erritmo azkarra du liburuak, poemak gehiegi korapilatzen ez dituelako, esanahiari garrantzia gehiago ematen diolako esaldiak apaintzeko ahaleginari baino. Poesia zuzena da, barnean hazi zaizkion gogoetatik kanporatua. Dena den, irakurleak, interpretazioaren jokoan bide ezberdinak har baditzake ere, badaki idazlea zertaz ari den, idazlearen mezua ez baita ezkutuan geratzen, idazleak berak azaleratu egin nahi baitu esateko duen hori.

Aurrez esan bezala, Blas de Otero – Bilbo Uria nazioarteko VIII. Poesia Lehiaketako saria jaso du Etxaburuk liburu honekin. Dena den, saria uztaldi osoak ekarri diola esango nuke nik, nahiz eta bere eskuetara lan honekin iritsi zaion.

Artxiboa

- Urtarrila 2017
- Abendua 2016
- Azaroa 2016
- Urria 2016
- Iraila 2016
- Abuztua 2016
- Uztaila 2016
- Ekaina 2016
- Maiatza 2016
- Apirila 2016
- Martxoa 2016
- Otsaila 2016

Aurreko urteak ▼

Hedabideak

- Argia (850)
- Berria (848)
- El Diario Vasco (807)
- El Correo (733)
- Gara (548)
- Egunkaria (505)
- Deia (357)

Hasier Rekondo

→ **Franco hil zuten egunak**
Koldo Izagirre
Javier Rojo

→ **Elkarrekin esnatzeko ordua**
Kirmen Uribe
Alex Gurrutxaga

→ **Elkarrekin esnatzeko ordua**
Kirmen Uribe
Hasier Rekondo

→ **Lo zaudela zabaldu**
dizkizut begiak
Mikel Etxaburu
Iker Zaldia



→ El País (151)

→ Aizu! (143)

→ Irunero (122)

→ Zeruko Argia (97)

→ Egin (77)

→ Hegats (62)

→ Besterik (1404)